



## AEROBIKA 2019

### ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Gimnastika Federazioarekin batera, 2019ko ekainaren 1ean Euskadiko XXXVIII. Eskolarteko Kirol Jokoak antolatuko ditu Santurtziko Mikel Trueba Udal Kiroldegian (Bizkaia), ondorengo araudiaren arabera:

#### **1. ADINAK ETA KATEGORIAK**

- 2005-2006 urte bitartean jaiotakoak infantil, eta 2007-2008 urte bitartekoak alebinak.

#### **2. TXAPELKETA MOTA**

- 4 – 8 kidez osatutako taldeak (mistoak edo ez)
- Hirunaka
- Binaka ( mistoak edo ez)
- Banaka

#### **Oharra**

- Gimnastek bi modalitatetan soilik parte hartu ahal izango dute.
- Konpetizio gunea: 10x10 metrotako azalera lisoa talde eta hirukoteentzat bi kategoriatan eta infantil mailako besteetan, eta 7x7 metrotako alebin mailako banaka, binaka eta hirunaka. Konpetizio azalera marrazten duen 5 zm-ko zabalerako marra batez inguratuak.
- Ariketen iraupena minutu 1 eta 15 segundokoa alebin mailan eta minutu 1 eta 20 segundokoa infantil mailan izango da. Ariketa osoa musikarekin egin behar da.
- Jantzera FIG kodearen arabera izango da (mediak beharrezkoak izango dira)
- Zapatilak txuriak izan beharko dira.
- Euskadiko Txapelketarako kategoria bakoitzeko lehenengo 5 taldeak klasifikatuko dira, binaka, hirukote eta taldeen artean banatuak.

- Txapelketa aurreko astean musika federaziora bidali beharko da, helbide honetara: [musicasfvg@gmail.com](mailto:musicasfvg@gmail.com)

### **3. KIROL SARIAK**

Ondorengo kirol sari hauek egongo dira:

- 4 - 8 kideetako taldeak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. taldeei emango zaie.
- Hirukoteak: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. hirukoteei emango zaie.
- Binaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3. bikoteei emango zaie.
- Banaka: Saria sailkatutako 1go, 2. eta 3.ei emango zaie.

### **4. EDOZEIN EZUSTEKOREN AURREAN**

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkerro nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

### **5. AZKEN OHARRA**

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaitan hauei jarraituko zaie:

- a) 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d) Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e) Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f.- Euskadiko gimnastika (Aerobik) federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.